



PASKALIN
KULERO-ZIKIN


Antton Dueso

*Miel Anjel Elustondoren moldapena
Egilearen marrazkiak*

Desclée De Brouwer



1. Etxea teilaturik



Begiak igurtzi zituen eta kalearen beste aldera begiratu zuen berriz. Ez, ez zen ametsetan ari. Beira birziklatzeko ontziaren ondo-ondoan irakaslearen auto dotorea zegoen aparkaturik, minutu batzuk lehenago ia-ia gure laguna harrapatu zuen auto bera. Punkik odola bor-bor sentitu zuen bere zainetan. Ukabilak itxi eta bekoskoa are gogor eta ilunago egin zitzaion, futbol epaileak txartel gorria erakutsi behar duenean jartzen duen bezalakoxe begirazuna, gutxi gorabehera. Automata bezala ibiliz, presarik gabe baina sendo, autoa aparkaturik zegoen aldera egin zuen. Parera heldu, kalearen alde batera begiratu, beste aldera... inor ez. Poltsikotik bihurkina atera eta lau erroberak urratu zituen. Ondoren, jauzi



arina eginez kapota gainera igo eta ero moduan jauzika hasi zen, hankapean txapa nola mailatzen zen antzematen zuela.

Baina, zer zela-eta ari zen irakaslearen autoa txikitzen? Zergatik begirazun zital hura? Zergatik ari zen jartzen adin txikikoentzako zentzategira bidaltzeko arriskuan? Jakinaren gainean zegoen oso delitu larria ari zela egiten... Punkiren jokae-



ra ulertu nahi izatekotan denboran atzera egin beharra dago; alegia, ez dago etxea teilatutik jasotzen hasterik.

Dena Don Manuelek klariona zintzilikatzea erabaki zuenean hasi zen. Irakasleak ez zuen behin ere pentsatu horrelakorik iritsi behar zuenik. Beti maite izan zuen irakas-kuntza, eta zorte handiko zela pentsatu izan zuen beti; gustuko lanean jardutea gauza handia da, badakizue. Gainera, gaztez inguraturik lan egiten zuen, “herriaren etorkizuna”, berak behin eta berriro esaten zuenez.

Baina gandor arroxarekiko gazte mukizu bere bidean jarri zen. Punki zutoina bezain zuzen jarriko zuela laster pentsatu zuen irakasleak, “denbora kontu’ zioen. Baina hiru hilabete pasatu ziren, eta hiruhileko hura bizian izan zuen txarrena izan zen.

Lehenengo, aulkian jarri zizkion txintxetak, bere ipurdia zulatu eta ikasleen barre algara eragin zutenak, alegia. Gero, bonba usain-ustela, esku beltz batek bere auto barrura bota zuena, emaztegaiari belarri-ra goxo-goxo ari zitzaionean: “Zure usainak txoraturik nauka...”. Hurrena, ur baldeka-



da izan zen: ikasgelako atea ireki eta bere burura erori zen bete-betea. Okerrena, hala ere, eta bere bizitzako estuasunik handiena sortu ziona, neska larrugorrien aldizkariarena izan zen: bat edo batek hiruhileko txostenaren partez utzi zuen eta sekulako zalaparta eragin zuen bere karteratik atera zuenean, gurasoen eta irakasleen batzordearen aurre-aurrean, hain zuzen.

Ongi asko zekien berak okerkeria horien arduradun Punki besterik ezin zitekeela izan, irribarre lerdoa eta begirazun lerdoagoa zuen ikasle malapartatua, alegia. Baina frogarik ez! Eta izan balitu ere, ez zuen zigortuko. Gezurra ematen badu ere, Don Manuel kakalarritu egiten zen punkiz jantzitako norbait bere parean pasatzen zenean. Ahal bazuen, kontrako espaloira pasatuko zen edo kale estrataren bat hartuko zuen. Herioa zien gandor multikoloredunak oldarkor erabiltzen zituzten morro haiei. Punki ikusten zuenean ere hankak flakiak jota sentitzen zituen, ikaslea izurri beltzaren pertsonifikazioa iruditzen zitzaion, gizartearen gaitz guzti-guztien erruduna. Hortaz, sendagileak estresari kontu egite-



ko agindu zionean, erabakia hartu zuen:
irakasle lana utzi eta txanpinoiak haztea.

